



Enpresak

Ekhilurren bazkidea izateak zure baloreekin bat egiten duen bezero potentzialen komunitatearen atea irekitzen dio zure enpresari.

Zure produktuak eta zerbitzuak sarean eskaini ditzakezu deskontuekin. Deskontu horiek, Ekhilur-puntuak bihurtuta, bezeroaren txartelan metatuko dira, eta erabilgarriak izango dira sarean hurrengo erosketak egiteko. Gainera, zure tokiko sareko bezeroen Ekhilur-bonuak, zure udalak ateratako Ekhilur-puntuak eta zure tokiko sarearen kideek abian ipinitako promozioak profitatu ditzakezu.

Sarean eragiketak egiteko zure enpresa kooperatibaren bazkidea izan behar da, horretarako, kapital sozialean **50€** jarri behar dituzu (kopuru hori bueltan jasoko duzu enpresari baja emanaz gero) eta Ekhilur-txartela bat erosi behar duzu **5,95€** eurotan. Aplikazioaren edo web orrialderen bidez txartela aktibatzean bi kontuen sarbidea izango duzu: bata Eurotan eta bestea Ekhilur puntuetan. Kontu horien mantentze-kostua hilabeteko euro bikoia (**2€**) izango da.

Ekhilurreko bazkideek (partikularrek zein enpresek) ordaintzen dizuten bakoitzean, pagamendua Ekhilur-puntuen kontuan gehituko da, eta puntu horiek sarean erosketak egiteko baliagarriak izango dira. Zure Ekhilur-puntuak euroen truke aldatu nahi baldin badituzu kostu bat ordaindu egin behar duzu eragiketarik, eta kostu hori zure *Komunitateko Giza-eraginaren Indizearen* arabera ezarriko da. Indize hori gertuko ekonomia, ekologia, genero-berdintasuna, justizia soziala eta bertoko kultura eta hizkuntza sustatzen dituzten enpresei sostengatzeko sortu da. Zure enpresaren indizea

ezagutzeko gure web orrialdeko "dokumentuak deskargatzeko" arloan kontsulta dezakezu (tokiko enpresa txikien kasuan indizea inoiz ez da jaitsiko "D" mailatik behera, horrek esan nahi du Ekhilur puntuak eurotan aldatzeko tasa handiena %2koa izango dela).

Ekhilur txartelaren erabiltzaileek egindako ordainketek ez dute inolako kosturik edukiko, ez haientzat, ezta zure enpresarentzat ere. Ekhilur-puntuak metatzeak, aldiz, bai izango du kostu bat: kontuan dagoen puntu-kopuruaren hileko batesbezteko % 0.5a. Kostu horren bidez, Ekhilur puntuen zirkulazioa sustatuko da metatzearen ordeztu, eta komunitate osorako aberastasuna sortuko da.

Labur esanda, Ekhilur sareko enpresak haien bezeroekin konektatzeko eta beraiekin loturak eta harremanak sortzeko eta indartzeko tresna ahalsua dugu.